

hondo-hondotik

IRAILAREN 11REN URTEURRENA. Egun seinalatua dela eta, hainbat artikulu kaleratuko ditu EGUNKARIAK ondorengo egunetan. Gaur gertaerek oro har alor ezberdinetan izandako eragina aztertu du Patxi Juaristik ondoko artikuluan.

Patxi Juaristi

(EHUko irakaslea)

Irailaren 11: mundua aldatu zuen eguna?

Idazle eta pentsalari askorentzat, irailaren 11n Dorre Bikien eta Pentagonoaren aurka egin ziren atentatuak hankaz gora jarri dute Berlingo Harresia jausi ondoren sortu zen gauzen ordena. Beste hitz batzuekin esanda, ekintza militar bortitz haiek historia aldatu dute. Beste batzuentzat, aldiz, Al Kaedaren erasoak munduaren antolaketa politiko-militarrari astindu bortitza besterik ez dira izan. Samin eta ikusgarritasun guztien gainetik (orotara 3.100 pertsona inguru hil ziren), Gerra Hotza bukatu ondorengo botere harremanek bere horretan jarraitzen dute, eta ukaezina da Ameriketako Estatu Batuek (AEB) mundu mailan duten hegemonia.

Eztabaidak eztabaida, zalantza gutxi dago orain dela urtebete gertatutakoak eragin ugari izan duela AEBetako eta, oro har, munduko biztanleengan. Arlo eta maila ezberdinetan atentatuak zapuztu ederra eman diote mendebaldetik gauzak ulertzeko eta antolatzeke moduari.

Atentatuak argi erakutsi dute muga fisikoek iraganean zuten garrantzia murriztu egin dela, eta globalizazioa gauza erreala dela; alegia, munduko edozein zonaldean gertatzen denak eragin zuzena eta berehalakoa izan dezakeela gure eguneroko bizitzan. Gugandik milaka kilometrorra gertatutako eraso haiek ordu gutxitan eragin zituzten aldaketak gure gizartean: AEBetan ez ezik Eurozonan ere interes tasak jaitsi ziren, aeronautikarekin loturiko enpresa askok lanpostuak murriztu behar izan zituzten (Gamesa, Iberia...) eta, oro har, munduko burtza eta ekonomia guztiek astindu ederra jasan zuten.

Arkitektura ulertzeko era ere aldatu da. Arkitektoak eta urbanismoan adituak lehen aldiz hasi dira pentsatzen ezin direla egin kontrolagaitzak diren eraikinak. Irailaren 11n gertatutakoak agerian utzi du eraikin altuegiek arazo ugari dituztela, eta hiriak antolatzeke moduak eta, oro har, gaur egungo joera arkitektonikoak ere birplanteatu egin behar direla.

Informazioarekin egiten den gerra arma bitartez egiten dena bezain garrantzitsua dela ikusi ahal izan dugu. Izan ere, norbere



Dorre bikiak sutan, iazko irailaren 11n.

interes araberako imajinak eta berriak plazaratuz, edozein motatako politikak babestu edo bultzatzea. Hala, ez da harritzekoa estatubatuarrek haserre agertzea irailaren 11z geroztik CNNk iritzi publikoa bideratzeko nazioarte mailan zuen indarra gutxitu denean, batez ere Mundu Islamiarrean. Gogoratu behar da, estatubatuarrek Afganistanen sartu zirenean egin zuten lehen gauza izan zela Al-Jazeera telebista kateak Kabuln zuen emisorea apurtzea.

Irailaren 11z geroztik joera kontserbadoreak eta eskuinekoak nabarmendu dira AEBetan eta, oro har, mundu osoan. CNN eta antzeko telebista kateen laguntzarekin gerra egoera bizirik mantendu da urte osoan zehar, eta Bushen lehen baino errazago ateratu ahal izan ditu aurrera bere politika militaristak Kongresuan. Ez dira gutxi diotenak Andaxa zuten eskutitzak Estatu Batuetako zerbitzu sekretuek bidali zituztela

herriarren psikosia areagotzeko, eta parte-hartze militarrekiko jarrera baikorra lortzeko. Era berean, atentatuak aitzakia ederra eman diote Bushi orain arteko politika inperialistekin jarraitzeko eta, bide batez, petrolioaren ekoizten den zonaldeak kontrolatzeko. Ez da ahanzi behar munduan erabilitako petrolio guztiaren %55,9 AEBetan kontsumitzen dela.

Eskuinerako joera hau, gainera, inolako kritika edo oposizioarik gabe egin ahal izan da. Bushen politika kontserbadoreei oso ondo etorri zaizkie Al Kaedaren ekintzak disidentziak murrizteko eta homogeneotasun ideologikoa bultzatzeko. Erlijioari buruzko aipamenen bitartez eta Osama Bin Ladenek gorpuzten duen arerio komunen irudia behin eta berriz erabiliz, ideia bat bakarra bultzatu nahi izan da AEBetan zein mundu osoan zehar: Bushen politika militaristak eta inperialistak justifikatuak ez ezik, beharrezkoak ere badirela.

Segurtasuna ulertzeko eta antolatzeke moduak ere aldatu dira. Gehiengoak uste zuenaren aurka, estatubatuarrek argi ikusi dute erasoak izan ditzaketela; alegia, norbere etxearen barnean ere ezin dela guztiz ziur egon. Ondorioz, aurretik ezinbestekotzat hartzen zen Galaxien Gerra alboratu eta lehentasuna eman diote barne segurtasuna ziurtatzeari. Horrek ekarri duena da estatubatuarren eta, oro har, munduko biztanleen kontrol handiagoa. Hala, aparatu eta sistema sofistikatuagoak bultzatu dira posta elektronikoak, faxak, Internet orriak eta sakelako telefonoen bitartez bidaltzen diren mezuak kontrolatzeko (Echelon egitasmoa, besteak beste). Urriaren 26an onartutako «Terrorismoaren aurkako lege berriak», gainera, segurtasunaren izenean giza eskubideak inolako begirunerik gabe zapaltzeko aukera eman dio Bushi.

Lehen ere bagenekien, baina atentatuak inoiz baino argiago utzi dute Nazio Batuen Erakundeak (NBE) edo Europako Batasunak botere gutxi dutela AEBen erabaki politiko eta militarrei aurre egiteko. Aurretik Bosnian, Kosovon edo Somalian gertatu bezala, nazioarteko erakunde hauek ezin izan dituzte Afganistanen aurkako gerran zibilen heriotzak gelditu edo giza eskubideak babestu (Afganistanen hildako zibilak 3.620 izan omen dira). Paradoxikoki 2001eko Bakearen Nobel Saria Kofi Annan idazkari nagusiarentzat eta NBERentzat izan zen.

Gure ustez, Berlingo Harresia jausi ostean sortu ziren botere harremanek bere horretan jarraitzen dute. Hau da, orain dela urtebete gertatutakoak ez du zalantzan jarri munduaren antolaketa politiko, ekonomiko eta militarra. Hala ere, estatubatuarren aurka Mundu Islamiarrean dagoen gorrotoa ikusita, pentsatzekoa da eraso bortitz gehiago egon daitezkeela, eta horiek, agian, historia alda dezaketela. Ez da ahaztu behar, Osama Bin Ladenen diru iturri asko eta asko oraindik ere martxan daudela (batzuen ustez Al Kaedarekin loturiko legezko negozioek 33 milioi euro mugitzen dituzte urtero) eta arma nuklearrak erabiltzeko mehatxua egin duela.

esaldiak

«Erdarak prozesu politiko baten ondorioz bihurtu dira hemengo hizkuntza ez, ordea, prozesu demokratiko baten ondorioz»

JOXE MANUEL ODRIÓZOLA

(Euskara irakaslea)

«Seme-alaben ibilerak kontrolatzeko mikrotxipa erabiltzeak legez kanpokoak izan behar luke»

KEVIN WARWICK

(Zibernetikan doktorea eta txiparen sortzailea)

«Latinoamerikan artea eta politika elkar lotuta daude ezinbestean; bien arteko harremana Europan baino garbiagoa da»

JORGE GALINDO

(Artista)

«PPk gatazka egoeraren irtenbidea oztopatu eta gure nazio eskubideen aldarrikapenean aurrera ez egitea du helburu»

BEGOÑA ERRAZTI

(Eusko Alkartasunako lehendakaria)